

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“A-3114 errepidea 26,020 kp-tik 27,430 kp-ra, Maeztu eta Elortza artean, egokitzeko eraikuntza proiektua”-k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Foru Gobernu Kontseiluak, 2023ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, 264/2023 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Proiektu honen eraginpean dauden ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrenda jendaurrean egon zen bitartean aurkeztutako alegazioei emandako erantzuna: “26,020 eta 27,430 kilometro puntuen artean, Maeztu eta Elortza artean, A-3114 errepidea egokitzeko eraikuntza proiektua”. Behin-behineko zerrendako 14 finkaren desafektazioa. Proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea. Okupatu beharraren eta presaz okupatu beharraren adierazpena. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 14ko 56/2023 Erabakiaren bidez, onespina eman zitzaion “26,020 eta 27,430 kilometro puntuen artean, Maeztu eta Elortza artean, A-3114 errepidea egokitzeko eraikuntza proiektua”ri, haren eraginpeko ondasun eta eskubideen hasierako banakako zerrenda zehatzari, eta hura jendaurrean jartzeko nahitazeko izapideari.

Jendaurrean egon den aldian, alegazio idazki tekniko eta juridikoak aurkeztu dira, eta Errepide Zerbitzuak eta Lege eta Administrazio Zerbitzuak txostena egin ondoren, Bide Azpiegituren Zuzendaritzak onetsi eta Foru Gobernu Kontseiluak bere egin ditu. Horiexek dira erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta alegazio egileei igorriko zaizkie, aurkeztutako alegazioak baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Aurreko izapidea bete ondoren, bidezkoa da, alde batetik, 14 finka behin-behineko zerrendatik desafektatzea, izan ere, ezabatu egin da hasieran aurreikusitako afektazioa, finka horren jabeak aurkeztutako alegazioa baietsi izanagatik, eta, bestetik, proiektu honen eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea, hauexek kontuan hartuta: aurkeztutako alegazioei emandako erantzuna; eraginpeko finken titulartasuna (Vitoria-Gasteizko 5. Jabetza Erregistroak emandako jabariaren eta kargen ziurtagirien arabera); 1, 2, 3, 4, 5, 13, 19, 20, 22, 23, 24, 25, 27, 31, 32, 33, 36, 39, 43, 45, 46, 47, 48, 49 eta 50 finken egungo aprobetxamenduak, eta 7, 8, 15, 18 eta 21 finken eraginpeko ondasunak.

Bestalde, desjabetze espedientea abiarazteko, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adierazi behar da, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espedientea Nahitazeko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraz izapidetu behar dela, eta, ondorioz, okupazioa presakoa dela adierazi behar dela. Horiek horrela, Errepide Zerbitzuak jakinarazi du Arabako Errepideen 2016-2027rako Plan Integralak, zeina Arabako Batzar Nagusiek behin betiko onetsi baitzuten martxoaren 20ko 6/2019 Foru Arauaren bidez, “Sarea egokitu eta hobetzea” programako “Trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea” azpiprogramaren barruan, jasotzen duela A-3114 errepidearen trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea, 25+950 eta 27+700 kilometro puntuen artean, 2022-2024 hirurtekorako lehentasunarekin. Era berean, “Auzo bideen sarea hobetzea” azpiprogramako jarduketan artean, A-3114 errepidearen eta Aletxara sartzeko A-4145 errepidearen arteko bidegurutzea sartzeko, 27+020 kilometro puntuan.

A-3114 errepidearen gaur egungo ibilbideak, 26+020 eta 27+430 kilometro puntuen artean, nahikoa ez den zeharkako sekzioa du; zehazki, 26+020 eta 26+830 kilometro puntuen artean, 4,5 metro zabal den galtzada du, bazterbiderik gabe. 26+830 eta 27+430 kilometro puntuen artean, Elortzatik igarotzen den tartearen barne, ibilbidearen galtzada oso estua da, 4,5 metro zabal hain zuzen ere, eta ez du bazterbiderik. Horrez gainera, bihurtze asko ditu, eta Elortzako Igoroin ibaiaren gainean dagoen zubirako sarbideetan eremuak oso murriztuak dira. Zubia oso estua da eta hainbat istripu gertatu dira. Haren bi aldeetan kokatuta dagoen hirigunea banatzen du.

Gainera, ez dago espaloirik edo oinezkoentzako ibilbiderik, ahalbidetzen dutenik gutxieneko segurtasuna egotea ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioaren eta Igoroin ibaiaren bi ertzen arteko loturaren artean. Hori dela eta, tarte hori oso arriskutsua izan daiteke, eta, beraz, errepidea hobetzeko eskaera behin eta berriz egin dute Arraia-Maeztuko Udalak eta inguruko administrazio batzarrek.

Gaineratu duenez, segurtasun arazo horiek konpontzeko, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak A-3114 errepidearen tarte horretan jardutea erabaki du, eta, horretarako, aipatutako proiektua onetsi du, zeinaren arabera, errepidearen oinplanoko trazadura eta altxaera egokituko baitira, 50-60 km orduko proiektu abiadurarako, 26,020 eta 27,150 kilometro puntuen artean, eta 40 km orduko proiektu abiadurarako, 27,150 kilometro puntu inguruaren eta proiektuaren bukaeraren artean. Era berean, proiektuaren zonan zeharkako sekzioa zabaltzea aurreikusten da, plataformari 6,00 metroko galtzada (2 x 3,00 m), 0,50 metroko alboetako bazterbideak eta 0,50 metroko kanpo bermak emanez, trafiko kargak erabiltzaileentzako segurtasun eta erosotasun baldintza egokietan jasotzeko gaitasuna duen bidea lortzeko.

Gainera, lehenengo tartean, 26,020 eta 27,150 kilometro puntuen artean, Berron ibaiaren azterketa hidrauliko bat egin da errepidearekiko bidegurutzean, eta beharrezkoa da ura husteko ahalmena handitzea; horretarako, zubi berri bat egin nahi da ibai horren gainean, bao bakarrekoa, euskarrien artean 17,10 metroko argia duena, egungo zubiarena baino askoz handiagoa, haren orde. Era berean, tarte horretan, Aletxara sartzeko A-4145 errepidearekiko bidegurutzeari berrantolatzea, hobetu eta egokituko da.

Bigarren tartean, zeina baitago 27,150 kilometro puntu inguruan dagoen gunearen eta proiektuaren bukaeraren artean, Igoroin ibaiaren azterketa hidrauliko bat egin da errepidearekiko bidegurutzean, eta beharrezkoa izan da lehendik zegoen zubia eraistea eta beste bat eraikitzea, bao bakarrekoa, bermeen artean 25,17 metroko argia duena. Era berean, zubian, galtzadaren bi aldeak oinezkoentzako egokitzea aurreikusten da, ibaiaren bi ertzak oinezkoentzat lotzeko, bai eta Elortzako hiri tartean espaloiak jartzea ere, oinezkoen ibilbidea bermatzeko.

Amaitzeko, esan du jarduketa horiek guztiek, proiektuak jasotzen duen errepiderako sarbideak berrantolatzearekin batera, aukera ematen dutela tarte horrek gaur egun dituen segurtasun arazoak konpontzeko. Obra horiek eginda, erabiltzaile mota guztien zirkulazio baldintzak hobetuko dira A-3114 errepidearen tarte horretan, irisgarritasun baldintzak modu seguruan hobetuko dira eta bide zati horrek gaur egun duen konfigurazioan dituen bide segurtasuneko arazoak konponduko dira.

Premiazko adierazpenaren izapide horretarako, Foru Gobernu Kontseilu honek foru erabakia hartu behar du, bat etorritik Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 178.2 artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarriaren arabera.

Eraginpeko ondasun eta eskubideak desjabetzeko aurrekontua 188.156,84 euro da, Desjabetze Atalak jakinarazi duenez.

Arabako Foru Aldundiak du eskumena Arabako errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki eta aldatzeko, Autonomia erkidegoko erakundearen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7. eta 8. artikuluetan eta Arabako Lurralde

Historikoko errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauak 8. artikuluan ezartzen dutenaren arabera. Eskumen horiek baliatzeko, Foru Aldundiak aukeran du desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetzea, hala xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzearen Legeak, 2.1 artikuluan.

Erakunde honen barneko eremuan, desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda onesteko organo eskuduna Foru Gobernu Kontseilua da, Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 8.1.c).7 artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren garden-tasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso den.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Proiektu honen eraginpean dauden ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrenda jendaurrean egon zen bitartean aurkeztutako alegazioei erantzutea: "26,020 eta 27,430 kilometro puntuen artean, Maeztu eta Elortza artean, A-3114 errepidea egokitzeko eraikuntza proiektua".

Bigarrena. 14 finka proiektu honen eraginpean dauden ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrendatik desafektatzea: "26,020 eta 27,430 kilometro puntuen artean, Maeztu eta Elortza artean, A-3114 errepidea egokitzeko eraikuntza proiektua".

Hirugarrena. Behin betiko onestea proiektu honen eraginpean dauden ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrenda: "26,020 eta 27,430 kilometro puntuen artean, Maeztu eta Elortza artean, A-3114 errepidea egokitzeko eraikuntza proiektua".

Laugarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Bosgarrena. Adieraztea eraginpeko ondasunak eta eskubideak presaz okupatu behar direla, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan xedatutako presazko prozeduraren bidez izapidetzeko.

Seigarrena. 188.156,84 euroko zenbatekoa esleitzea, Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean jasotzen diren finkei dagokien balio justua ordaintzeko, Desjabetze Atalaren buruarren ordainketaren proposamen txostena aurkeztu eta gero, eta Nahitaezko Desjabetzearen Legeak ezarritako epeen barruan, Arabako Foru Aldundiaren 2023ko aurrekontuaren 50106. G/453501/60000504 "Desjabetzeak" partidaren kontura.

Zazpigarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko titularrari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikokoaren 2023rako Aurrekontua Betearazteko abenduaren 20ko 23/2022 Foru Arauaren 15. artikulua.

Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Arraia-Maeztuko Udaltxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzegatik kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 19a

Bide Azpiegituren zuzendaria
FERRAN SOLÉ I PALLEJÀ

Bide Azpiegituren eta
Mugikortasunaren Saila
Departamento de Infraestructuras
Vías y Movilidad

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

PROIEKTUA / PROYECTO
A-3114 errepedea 26,020 kp-tik 27,430 kp-ra, Maeztu eta Elortza artean, egokitzeko eraikuntza proiektua
Proyecto de construcción de acondicionamiento de la carretera A-3114 entre los p.k. 26,020 y p.k. 27,430, entre Maestu y Leorza
Udal Mugartea / Término Municipal: Arraia-Maeztu

FINKAREN ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALERA m ²		EGUNA	ORDUA	
		POLIGONOA	LURSAILA			BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKO			ZORTASUNA
5	JUNTA ADMINISTRATIVA DE MAESTU	1	226	Mendia / Monte		92	-	12/6/23	10:00	
23	JUNTA ADMINISTRATIVA DE MAESTU	4	866	Labore ureztatua / Tierra de laborregadio		1.981	-	12/6/23	10:00	
45	JUNTA ADMINISTRATIVA DEL REAL VALLE DE LAMINORIA	4	137	Bizilegi-huzuru urbanizatua / Urbanizado Residencial		-	53	12/6/23	11:00	
50	JUNTA ADMINISTRATIVA DEL REAL VALLE DE LAMINORIA	6	119	Mendia / Monte		77	-	12/6/23	11:00	
51	JUNTA ADMINISTRATIVA DEL REAL VALLE DE LAMINORIA	6	116	Onura publikoko mendia / Monte de utilidad pública		868	-	12/6/23	11:00	
48	FABRICA DE ASFALTOS DE LEORZA	4	140	Bizilegi-huzuru urbanizatua / Urbanizado Residencial	Ilkutura / Cierre	44	-	12/6/23	12:45	
49	FABRICA DE ASFALTOS DE LEORZA	4	130	Bizilegi-huzuru urbanizatua / Urbanizado Residencial		56	-	12/6/23	12:45	
38	ANDRES FERNANDEZ DE CORRES DIAZ-PARDO LUIS FERNANDEZ DE CORRES DIAZ-PARDO M. VICTORIA FERNANDEZ DE CORRES DIAZ-PARDO	6	716	Lehoneko laborea / Cultivo secano		138	-	13/6/23	10:00	
44	ANDRES FERNANDEZ DE CORRES DIAZ-PARDO LUIS FERNANDEZ DE CORRES DIAZ-PARDO M. VICTORIA FERNANDEZ DE CORRES DIAZ-PARDO	4	158	Lehoneko laborea / Cultivo secano		1.284	375	13/6/23	10:00	
28	M. VICTORIA FERNANDEZ DE CORRES DIAZ-PARDO	6	724	Lehoneko laborea / Cultivo secano		123	203	13/6/23	10:00	
43	ANDRES FERNANDEZ DE CORRES DIAZ-PARDO	4	869	Labore ureztatua / Tierra de laborregadio		185	-	13/6/23	10:00	
22	GELINA ARANA CAÑEDO-ARGUELLES M. TERESA ARANA CAÑEDO-ARGUELLES ENRIQUE ARANA CAÑEDO-ARGUELLES JUAN ARANA CAÑEDO-ARGUELLES	4	867	Labore ureztatua / Tierra de laborregadio		309	-	13/6/23	12:15	

Esp. Exph. 2023/3

FINKARENZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	BEHIN-BETIKOA	ERAGINDAKO AZALERA m ²		EGUNA	ORDUA
		POLIGONOA	LURSAILA				ALDI BATERAKO A	ZORTASUNA		
Nº FINCA	TITULAR	DATOS CATASTRALES		APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	SUPERFICIE AFECTADA m ²		DIA	HORA	
		POLIGONO	PARCELA							
24	LAS FERRERIAS DE MAESTU, S.L.	6	726	Labore ureztatua / Tierra de laborregadio		86	1.114	13/6/23	13:00	
18	AMALIA FILOMENA MARTINEZ DE LAHIDALGA BIELSA FRANCISCO COTE LOPEZ	1	200	Fruitu-erbolak / Frutales	Zuhaltzak / Arboles	196.01	-	16/6/23	10:00	
21	AMALIA FILOMENA MARTINEZ DE LAHIDALGA BIELSA FRANCISCO COTE LOPEZ	4	1019	Baratzea / Huerta	Harnesi / Muro	495	-	16/6/23	10:00	
8	ANNE MIREN IRIZAR ARRIETA	1	216	Lehorreko laborea / Cultivo secano	Fruitu-erbolak / Frutales	252	-	16/6/23	11:00	
29	M. LOURDES ELIZONDO PEREZ DE LECETA	4	863	Lehorreko laborea / Cultivo secano	Harnesi / Muro	316	-	16/6/23	12:15	
33	M. LOURDES ELIZONDO PEREZ DE LECETA	6	722	Lehorreko laborea / Cultivo secano		201	-	16/6/23	12:15	
46	M. LOURDES ELIZONDO PEREZ DE LECETA	4	129	Bizilegi-huzuror: urbanizatua / Urbanizado Residencial		8	146	16/6/23	12:15	
9	FRANCISCA LOPEZ DE AGUILERA RODRIGUEZ	1	215	Baratzea / Huerta	Harnesi / Muro	201	21	19/6/23	10:00	
12	M. JOSEFA ARANA SALSAMENDI M. ISABEL ARANA SALSAMENDI	1	212	Baratzea / Huerta	Harnesi / Muro	51	84	19/6/23	10:45	
7	ALFONSO SAENZ DE CAMARA BARRON CARMEN MARTINEZ DE APELLANIZ LOPEZ DE ALDA	1	217	Baratzea / Huerta	Sarnereko atea / Puerta acceso Harnesi / Muro	8	-	19/6/23	12:00	
16	NORMA MARLENE RODRIGUEZ BARRERA SERGIO RAMIRO BARRERA BRAVO LILIA MINA LEON	1	208	Baratzea / Huerta	Harnesi / Muro	85	13	19/6/23	12:45	
31	MARIA ROSARIO MARTINEZ LAHIDALGA OCHOA PEDRO MARTINEZ DE LAHIDALGA SAEZ JESUS HILARIO MARTINEZ DE LAHIDALGA SAEZ	4	862	Labore ureztatua / Tierra de laborregadio		238	176	19/6/23	13:30	
6	M. SARA DURANA MARTINEZ DE RITUERTO	1	225	Labore ureztatua / Tierra de laborregadio		636	-	20/6/23	10:00	
2	LUIS EMPARAN ARANEGUI	4	974	Labore ureztatua / Tierra de laborregadio		49	-	20/6/23	10:45	
3	LUIS EMPARAN ARANEGUI	4	973	Labore ureztatua / Tierra de laborregadio		255	-	20/6/23	10:45	
30	M. NIEVES LOPEZ DE ARREGUI IBISATE	6	723	Lehorreko laborea / Cultivo secano		644	-	20/6/23	10:45	
32	REBECA ALZOLA MARQUINEZ	4	868	Labore ureztatua / Tierra de laborregadio		450	7	20/6/23	12:00	
						409	190	20/6/23	12:45	

Nº FINCA	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	BEHIN-BETIKOA	ERAGINDAKO AZALERA m²		EGUNA	ORDUA		
		POLIGONOA	LURSAILA				ALDI BATERAKO A	ZORTASUNA			DIA	HORA
27	JESUS ELIZONDO PEREZ DE LECETA	6	725	Labore ureztatu / Tierra de laborregadio		4	168	Telefono linearen aireko zortasuna / Servidumbre telefónica aérea (1 m)	20/6/23	13:30		
37	RAFAEL FERNANDEZ DE RETANA GABANES	6	717	Baratzea / Huerta	Zuhaitzak / Arboles Hesiak / Setos	136	-	-	21/6/23	10:00		
1	JOAQUIN GARRIDO ECHAZARRA	4	975	Lehorreko laborea / Cullivo secano		575	-	-	21/6/23	10:45		
41	LUCIANA SOLIS GARCIA	6	713	Larrea B / Pasto B		111	-	-	21/6/23	12:00		
35	J. IGNACIO LOPEZ DE ALDA PEREZ DE VINASPRES	6	720	Lehorreko laborea / Cullivo secano		162	-	-	21/6/23	12:45		
19	EVA MARIA LOPEZ DE ALDA PEREZ DE VINASPRES	4	1017	Larrea B / Pasto B		29	-	-	21/6/23	13:30		
20	AYUNTAMIENTO DE ARRAIA-MAEZTU	4	1018	Larrea B / Pasto B		54	-	-	21/6/23	13:30		
26	AMABLE LOPEZ DE AGUILETA RODRIGUEZ	4	864	Lehorreko laborea / Cullivo secano		646	-	-	22/6/23	10:00		
40	ANGEL QUINTANA MARTINEZ DE LAHIDALGA	6	714	Baratzea / Huerta		122	-	-	22/6/23	10:45		
10	F. JAVIER PEREZ DE LECETA AGUIRRE	1	214	Baratzea / Huerta		101	17	Lumpeko ureztalze zortasuna / Servidumbre de riego subterránea (3 m)	22/6/23	12:00		
11	M. CONSUELO PEREZ DE ALBENIZ ZURBANO	1	213	Baratzea / Huerta		96	46	Lumpeko ureztalze zortasuna / Servidumbre de riego subterránea (3 m)	22/6/23	12:45		
13	J. IGNACIO PEREZ DE LECETA DORRONSORO	1	211	Baratzea / Huerta		190,76	-	-	22/6/23	13:30		
25	J. ANTONIO LACHA OCHOA	4	865	Labore ureztatu / Tierra de laborregadio		1.434	-	-	23/6/23	10:00		
17	ROBERTO MARTINEZ DE LAHIDALGA NANCLARES	1	207	Baratzea / Huerta	Ixtura / Cierre	148	18	Lumpeko ureztalze zortasuna / Servidumbre de riego subterránea (3 m)	23/6/23	10:45		
4	INMACULADA MARTINEZ DE LAHIDALGA NANCLARES	1	227	Fruitu-arbolak / Frutales	Ixtura / Cierre Hesiak / Setos Zuhaitzak / Arboles	1.120	-	-	23/6/23	12:00		
39	MONTSERRAT MARTINEZ DE LAHIDALGA NANCLARES	6	715	Baratzea / Huerta		152	-	-	23/6/23	12:45		
15	SERGIO MARTINEZ DE LAHIDALGA NANCLARES	1	209	Baratzea / Huerta	Harresi / Muro Zuhaitza / Arbol	276	32	Lumpeko ureztalze zortasuna / Servidumbre de riego subterránea (3 m)	23/6/23	13:30		
34	JON MARTINEZ DE LAHIDALGA NANCLARES	6	721	Baratzea / Huerta	Zuhaitzak / Arboles Hesiak / Setos	167	-	-	26/6/23	10:00		
36	ANA ISABEL RUIZ DE AZUA ESTIVARIZ	6	719	Baratzea / Huerta	Zuhaitzak / Arboles Harresi / Muro	65	-	-	26/6/23	10:45		
42	CARLOS CID GRADOS	6	712	Baratzea / Huerta		544,80	-	-	26/6/23	12:15		
4	AGUSTIN OCHOA DE ALDA ESPADAS	1	207	Baratzea / Huerta		148	18	Lumpeko ureztalze zortasuna / Servidumbre de riego subterránea (3 m)	23/6/23	10:45		
39	JAIONE PEREZ DE VINASPRES MARTINEZ DE LAHIDALGA	6	715	Baratzea / Huerta		152	-	-	23/6/23	12:45		
15	RUBEN ARENAZA BERRUETE	1	209	Baratzea / Huerta	Harresi / Muro Zuhaitza / Arbol	276	32	Lumpeko ureztalze zortasuna / Servidumbre de riego subterránea (3 m)	23/6/23	13:30		
34	VIDAL BASTERRA CASTILLO	6	721	Baratzea / Huerta	Zuhaitzak / Arboles Hesiak / Setos	167	-	-	26/6/23	10:00		
36	MARIA DEL MAR SERNA ALLENDE	6	719	Baratzea / Huerta	Zuhaitzak / Arboles Harresi / Muro	65	-	-	26/6/23	10:45		
42	IGNACIO OROONANA SAENZ	6	719	Baratzea / Huerta	Zuhaitzak / Arboles Harresi / Muro	65	-	-	26/6/23	10:45		
42	M. JOSE ILLERA MARTIN	6	719	Baratzea / Huerta	Zuhaitzak / Arboles Harresi / Muro	65	-	-	26/6/23	10:45		
42	ALVARO ORDOÑANA SAENZ	6	719	Baratzea / Huerta	Zuhaitzak / Arboles Harresi / Muro	65	-	-	26/6/23	10:45		
42	PHILIP FELIX PATRIC MILLER	6	712	Baratzea / Huerta		544,80	-	-	26/6/23	12:15		

FINKARENZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALERA m ²				EGUNA	ORDUA
		POLIGONOA	LURSAILA		BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKO A	ZORTASUNA	EGUNA		
Nº FINCA	TITULAR	DATOS CATASTRALES		BIEN AFECTADO	SUPERFICIE AFECTADA m ²		TEMPORAL	SERVIDUMBRE	DIA	HORA
47	PHILIP FELIX PATRIC MILLER CAJA LABORAL POPULAR COOPERATIVA DE CRÉDITO	4	152	Bizilegi-luzorzu urbanizatua / Urbanizado Residencial	-	30	10	Telefono linearen arieko zortasuna / Servidumbre telefónica aérea (1 m)	26/6/23	12:15